

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onestea eskaintzen diren udal ikastaroen tasa arautzen duen udalaren 7. zerga ordenantzaren 10. eranskinaren aldaketa

Amurrioko Udalaren Musika Fundazioaren Zuzendaritza Batzordeak, 2019ko martxoaren 29ko bilkuran, eskaintzen diren udal ikastaroengatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen 7 zerga ordenantzaren 10. eranskinaren aldaketari (2019/1/S056 espedientea) behin-behineko onarpena eman zion, eta 45. zenbakiko ALHAOn (2019ko apirilaren 12koa) argitaratu zen erabakia. Erabaki horren aurka erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, halaxe agintzen baitu Toki ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.3 artikuluan. Horrela, bada, jendaurrean jartzen da, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta aipatutako legegintzako errege dekretuak 17.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. Zerga ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Hona hemen zerga ordenantzaren testu aldatua hitzez hitz:

MUSIKA IKASTEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN 7 ZERGA ORDENANTZAREN 10. ERANSKINA

1. artikulua. Lege oinarria

Bat etorri Toki ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 20. artikuluan ezarritakoarekin, Amurrioko Udal Musika Eskolan musika eskolengatik ordaindu beharreko tasa ezartzen da.

2. artikulua. Subjektu pasiboa

Musika ikasteagatik ordaindu beharreko tasa ordaintzera beharturik daude Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak 35. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak, baldin eta Amurrioko Udal Musika Eskolan matrikulatzen badira.

3. artikulua. Sortzapena

1. I., II., III. eta IV. mailatako zernahi ikasgaitan eta hautazko ikasgaietan izena ematen duten ikasleei kobratuko zaie matrikula tasa, eta ordaintzeko beharra matrikulatzen diren egun berean sortuko dute. Onartu egingo da ezeztatzea irailaren 15a baino lehen eskatu duten eta eskolara egun bat bera ere joan ez diren ikasleen matrikulak.

2. Musika eskolan izena lehenengoz ematen duten guztiek ordainduko dute espedientearen irekitze tasa, eta ordaintzeko beharra matrikulatzen diren egun berean sortuko dute.

3. Gainerako kontzeptuak ordaintzeko beharra matrikula egitean sortuko da. Irailtik ekainera (biak barne) kobratuko da, hamarrena hileko.

4. artikulua. Tarifak eta haien ordainketa

1. Ikasturtea hasi aurreko ekainean edo uztailean ordaindu ahal izango dira matrikularen eta espedientea irekitzearen zenbatekoak, bankuan helbideratuta.

2. Gainerako tarifak hamar hilabeteetan, iraila eta ekaina bitartean, ordainduko dira hainbanatuta, bankuan helbideratuta, kontuan hartu gabe ikasleak zenbat egunetan joaten diren eskolara.

3. Tarifa hauek ezartzen dira:

1. Matrikula: 109,29 euro.
2. Espedientea irekitzea: 35,78 euro.
3. I. maila (5 eta 7 urte bitarteko ikasleak).

Irakasgaiak	Tarifa
3.1. Musika eta mugimendua	344,40 euro
3.2. Musika eta mugimendua, eta instrumenturako orientabidea	695,60 euro
3.3. Musika eta mugimendua, eta instrumentua	1.032,20 euro

4. II. maila (8 urtetik aurrera).

4.1. Haztapenak:

Irakasgaiak	Tarifa
4.1.1. Instrumentua	687,90 euro
4.1.2. Musika hizkuntza (helduak)	344,40 euro
4.1.3. Musika hizkuntza	344,40 euro
4.1.4. Bakarleri kantua (**)	687,90 euro

4.2. 1., 2. eta 3. moduluak:

Irakasgaiak	Tarifa
4.2.1. Instrumentua	687,90 euro
4.2.2. Musika hizkuntza eta abesbatza	430,10 euro
4.2.3. Musika hizkuntza (helduak)	344,40 euro
4.2.4. Bakarleri kantua (**)	687,90 euro

4.4. 4. moduluak:

Irakasgaiak	Tarifa
4.4.1. Instrumentua eta hartan trebatzea	1.028,70 euro
4.4.2. Pianoa eta instrumentuan trebatzea	864,60 euro
4.4.3. Musika hizkuntza	344,40 euro
4.4.4. Instrumentua (helduak)	687,90 euro
4.4.5. Bakarleri kantua (**)	687,90 euro

4.5. 5. eta 6. moduluak:

Irakasgaiak	Tarifa
4.5.1. Instrumentua eta hartan trebatzea	1.028,70 euro
4.5.2. Pianoa eta instrumentuan trebatzea	864,60 euro
4.5.3. Instrumentua (helduak)	687,90 euro
4.5.4. Bakarleri kantua (**)	687,90 euro

5. III. maila.

Irakasgaiak	Tarifa
5.1. Espezialitateko instrumentua eta talde trebakuntza	1.028,70 euro
5.2. Pianoa eta instrumentuan trebatzea	864,60 euro
5.3. Instrumentua (helduak)	687,90 euro
5.4. Bakarlari kantua (**)	687,90 euro

6. IV. maila.

Irakasgaiak	Tarifa
6.1. Instrumentuan trebatzea	340,90 euro
6.2. Instrumentua	687,90 euro
6.3. Bakarlari kantua (**)	687,90 euro

7. Hautazkoak.

Irakasgaiak	Tarifa
7.1. Comboak. Instrumentu taldea	340,90 euro
7.2. Informatika musikan (14 urtetik gora)	344,40 euro
7.3. Eskolania	172,90 euro
7.4. Musika modernoa	344,40 euro
7.5. Inprobisazioa	344,40 euro
7.6. Instrumentu osagarria	687,90 euro
7.9. Instrumentuan trebatzea	340,90 euro
7.10. Musika hizkuntza (helduak)	344,40 euro
7.11. Musika hizkuntza (*)	344,40 euro

8. Lantegiak.

Irakasgaiak	Tarifa
8.1. Ahots zurien abesbatza	172,90 euro

4. Aurreko paragrafoko tarifak direla eta, heldu izango dira hamahiru urte edo gehiago izan eta baldintza hauetakoren bat betetzen duten ikasleak:

a) Musika eskolan lehenengoz matrikulatzen direnak eta aldezturik musika ez daki-tenak.

b) Aurreko ikasturteetan "heldutzat" jo direnak.

5. Musika hizkuntza (*) kontzeptua hauei aplikatuko zaie: musika hizkuntzako 4. modulua amaitu duten ikasleei, musika ikasketak egiten jarraitu nahi duten ikasleei, arauzko ikasketetan sartzeko probak prestatzen ari direnei...

6. Bakarlari kantua (**) kontzeptua 16 urtetik gorako ikasleei aplikatuko zaie.

5. artikulua. Sortutako tarifak zati batean edo guztiz ezeztatzea

1. Matrikulatuei tarifak zati batean edo guztiz ezeztatu ahalko zaizkie, egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

a) Ikaslea edo guraso ahala duen guraso edo tutoretariko bat hiltzen bada.

b) Ikasturtea hasi ondoren, ikaslearen familia unitatea beste herri batera bizitzera joaten bada.

c) Ikaslea edo guraso ahala duen guraso edo tutoretariko bat langabezia geratzen bada.

d) Ikaslea hamabost egunez baino gehiagoz ospitaleratuta egon bada.

e) Ikasleak ezin baditu bateragarri egin eskolak eskainitako ordutegia eta derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoaren eta goi mailako hezkuntzaren ordutegiak, eta/edo gerora, Amurriotik 100 kilometro baino gehiagora dagoen udalerriren bateko ikastetxe batean matrikulatzen bada hezkuntza maila horiek egiteko.

f) Istripu edo gaixotasunen bat izanez gero gerora. Eskaerarekin batera medikuaren ziurtagiria aurkeztuko da. Ziurtagiri horretan hau adieraziko da: ezeztatze eskatzen den ikasgaia ikasten aritzeko ikaslearen ezintasuna edo beste zernahi agiri, alegatutako ezintasuna egiaztatzen duena.

g) Matrikula egin eta gero gertatutako ezinbesteko zernahi kausa. Horrelakoetan, nahitaezkoa izango da zentroko zuzendaritzaren aldeko txostena eta onartua izango da, baldin eta, gutxienez, boto eskubidea duten legezko batzarkideen hiru laurdenek aldeko botoa ematen badute.

2. Ezeztatu egingo da musika eskolara hilean egun bat bera ere joan ez den hileko eta hurrengoetako zati alikuota, baldin eta joan ez izanaren arrazoia tarifaren zati bat edo guztia ezeztatzea ahalbidetzen duen arrazoiren batengatik bada. Ez dira itzuliko matrikula eta espediente irekierarengatik ordaindutakoak.

3. Tarifak zati batean edo guztiz ezeztatze eskubidea Musika Eskolaren Zuzendaritza Batzordeak onartuko du, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

6. artikulua. Hobariak

1. Tasaren ehuneko 23ko murrizketa egingo da ofizioz, baldin eta egiaztatzen bada ikaslearen familia unitateko kide guztiak udalerrian erroldatuta daudela. Hobaria guztiz edo zati batean aplikatu ahal izateko, ikaslea zein udalerritakoa den, bertako udalak Musika Fundazioarekin edo Amurrioko Udalarekin lankidetzako ekonomia hitzarmena izenpetuta izan behar du. Amurrioko Udalaren Musika Fundazioaren Zuzendaritza Batzordeak ezarriko du hobariaren ehunekoa, aipatutako hitzarmenak ikusita.

2. Aurreko paragrafoan araututako hobaria aplikatzearen ondoriozko kuotei ehuneko 50eko hobaria aplikatuko zaie, baldin eta ikasleak familia ugariak badira eta kide guztiak Amurrioko udalerrian erroldatuta badaude. Matrikula egitean egiaztatu beharko da familia ugariaren kide dela; horretarako, familia ugariaren titulua edo haren fotokopia konpultsatua aurkeztuko da.

3. Aurreko paragrafoan araututako hobariak aplikatzearen ondorio diren kuotek ehuneko 20ko hobaria izango dute, baldin eta familia unitateko hiru kide edo gehiago matrikulatuta badaude.

4. Udalerrian erroldatutako ikasleek kuotaren ehuneko 90eko hobaria izango dute, baldin eta ikasturtea hasten den ekitaldi ekonomikoko OHZren kuotan Amurrioko Udalak ehuneko 99 hobaria onartuta badiu familia unitateko kideren bati. Ezinbestekoa izango da ikaslea udalak OHZren hobaria onartzen duen unean familia unitateko kide izatea eta hobaria duen etxebizitzan benetan bizi izatea. Hobaria hori ofizioz onartuko da, Amurrioko Udalaren zerbitzu ekonomikoek aldeko irizpena emandakoan, eta bateragarria izango da ordenantza honetan arautzen den beste zernahi hobarirekin.

5. Amurriko erroldatuta dauden familia unitateetako ikasleak, baldin eta baldintzak haiek betetzen badituzte:

1. Familia unitateko kide guztiek eta haiekin bizi diren gainerako lagunek zenbateko hauen azpitiko errenta izatea:

a) Urtean 10.296 euro, bakarra bada etxebizitzan bizi eta familia unitatea osatzen duen pertsona.

b) Urtean 15.444 euro, bi badira etxebizitzan bizi edo familia unitatea osatzen duten pertsonak.

c) Urtean 21.000 euro, bi baino gehiago badira etxebizitzan bizi edo familia unitatea osatzen duten pertsonak.

Hobaria eman ala ez erabakitzeke, eskaera aurkeztu aurreko ekitaldian izandako diru sarrerak izango dira kontuan, eta ez da berriz ere kalkulatu hobaria jasotzeko epean. Idatz zati honetan ezarritakorako:

a) Errenta da zerga oinarria ken konpentsazio pentsioen eta mantenurako urterokoen murrizketa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 69. artikuluan jasotzen duena. Errenta zehazteko, Pertsona Fisikoen Errentaren datuak hartuko dira aintzat eta, autolikidaziorik aurkeztu beharrik ez badago, errenta hori egiaztatzeke balio duen beste edozein informazio.

b) Familia unitatea: azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 98. artikuluan definitzen duena da.

2. Hobari honetaz gozatzeko ezinbesteko baldintza izango da subjektu pasiboek eta familia unitatea osatzen duten edo etxebizitzan bizi diren pertsonak ez edukitzea etxebizitza erabilera hutseko beste higiezinik Euskal Autonomia Erkidegoan.

Kuotaren ehuneko 90eko hobaria izateko eskubidea izango dute eskaera ondorengo hurrengo hiru ikasturteetan. Ezinbestekoa izango da subjektu pasiboa familia unitateko kide izatea eskaera egiteko unean eta hala izaten jarraitzea hobariak eragindako ikasturteetako hasieran. Hobaria hori bateragarria izango da ordenantza honetan arautzen den beste zernahi hobarirekin.

6. Hobaria galtzea ekar dezake apartatu honetan jaso eta hobaria izateko eskubidea ekarri duen baldintzetakoren baten aldaketak.

7. artikulua. Ez ordaintzea

Tasa horien zorrak premiamendu bidez eskatuko dira.

Ikastaroa bukatuta, tasak ez ordaintzeagatik zorren bat dutenei ez zaie hurrengo ikasturterako egindako matrikula eskaera onartuko.

8. artikulua. Talde eskolen berezitasunak

Ikaslea edozein unetan matrikulatu daiteke taldeko ikasgaietan, nahiz eta ikasturtea hasita egon, eskolako zuzendaritzak ongi baderitzo. Horrelakoetan, eskolen eta matrikularen tasa murriztu egingo da, ikasturtea hasi zenetik igarotako hil osoen zati proportzionalan.

9. artikulua. Bajak onartzea, ordezkapena egonez gero

1. Sortutako tarifak guztiz edo zati batean ezeztatzeke eskubidea izango dute matrikulatuek, beste ikasle batek ordeztuz gero. Hala izanik, baja egiten duen ikasleak eskubidea izango du ikasturtea amaitu arte geratzen diren hil osoen zati proportzionala jasotzeko, beste ikaslea onartzen denetik aurrera. Espedientea irekitzeagatik eta matrikulagatik ordaindutako zenbatekoak ez dira itzuliko, ezta murriztu ere. Alta egiten duen ikasleari eskolen eta matrikularen tasa murriztuko zaio, ikasturtea hasi zenetik igarotako hil osoen zati proportzionalan.

2. Artikulu honetan adierazitako tarifak zati batean edo guztiz ezeztatzeke eskubidea Musika Eskolaren Zuzendaritza Batzordeak onartuko du, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

10. artikulua. Kudeaketako beste arau batzuk

1. Behin matrikula eginda, eskainitako plazak kentzen badira jende gutxi matrikulatu delako, matrikularen eta espedientea irekitzearen tasen zenbatekoak automatikoki itzuliko dira, hau da, ikasleak ez du eskaerarik egin beharko.

2. Baja eskaerak Udalaren erregistro orokorrean aurkeztu behar dira.

AZKEN XEDAPENA

Musika eskolengatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen 7.11 eranskina indarrean jarriko da ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean izango da harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Amurrio, 2019ko maiatzaren 29a

Lehendakaria

MONTSERRAT CANIVE ALDAMA